

MAXKADA GÁMEN

Urtarrilaren 25ean elurpean zegoen Ziberoa. Eta gamearren artean gertatu nintzen, bertako maxkaradak lehenengo aldiz ikusteko asmotan.

Jakina denez, oso Zibero-zale nauzue ni. Ez baitut ukatzen. Eta analista sakon batek zergatik ote den aztertuko balu, oso beldur naiz Zibero-zaletasun etsi horretan ene nortasunaren kakoa bera ez ote lukeen antzemango. Game zer den? («Camou» frantsesez). Mendarte batetan kokaturik, zortzi bat etxe elkarren ondoan; eta inguruetan, baserri batzuk. Beherean, handik sei-zazpi kilometrotara, Atharratze, Basabürüko hiriburu koxkorra.

Gaínean, berriz, bainan ez agiri, Zihiga (Zihiga bai, Nafarroa Garaian bezelaxe), beste bospasei etxetako guínea. Eta horrez gain, zer? «Bortia» nun-nahi, mendia, Izadia bera nagusi, egun horretan elurrak zuritua. Ziberoa ez baita gaur, ia-ia euskal toki-izen mordo hutsa baizik.

Aspaldi honetan erabiltzen ez bide den frontoin apalaren ondotik, bero zegoen erreka egun horretan ere, eta kea zeriola. Berezko ur beroak baitaude Gamen (38° C), behinola aski eza-gutuak eta istimatuak omen.

Game herriska izana hustutzen ari, noski, Zibero guztia bezala: 140 biztanle gaurko egunean, azaldu didatenez. Haur pare bat jostatzen ikusi nuen goizean; eta euskaraz ari ziren, lparralde honetan zinez gutxitan gertatu ohi dena.

Frontoinaren ondoko «Aguer» bazkaldegia, inguru haíetan bakarra, maxkarada-jokatzailleek eta ikusleek mukurru betea. Etxekandere jatorrak, etxekalaba eder atseginak, eta gainerakoek ere bazuten egun hartan aski lanik!

Ohiturari jarraikiz herriz-herri dabilela-ta, goizean Zihigan emana, arratsaldean, bazkalondo berean, Gamen jokatzen zen maxkarada. Erdi-Harotik edo jasoa, galtzen hasia zen ohitura hau azkeneko urteetan; baina orain, Altzaiar gazteei esker, «arrabiztu» egin da; eta orain dela 16 urte etena zirudien katea, Etxart suharraren eraginaz (bizpahiru ania taldean) bizirik dugu berriro maxkarada. Etxart izena eman dut, bai, aipatu beharra baita; ezen ez baita osoki harritzekoa ere Mauleko ikastolako anderefoa, Margaita Rekalt (Altzaiarra hau ere) Etxart berorren emaztea izatea.

Frontoin txikira bildu gara, beraz, maxkaradaren egileak eta besteak. Guztira 150 bat gehienik. Egiazkoa da oraino maxkarada. Zaharkitua beharbada: ijitoen etorrera, «zamai»aren perraketa eta txikiaketa, esate baterako, zer dira gaurko euskaldun gehienontzako, aspaldidanik ahantzitako kezkek baizik? Folkloreaz kezkek baizik? Folkloreaz da, hortaz, maxkarada; baina folklorea egiazkoa, eta ez folklo-rekeria. Elur-giro hotz hartan ikusia, oraindik erakuskari eta turismo-gar-nata ez bihurtua, hauxe izan zait maxkarada: bere trufa-airean moldaturik: aspaldiko Euskal Herriaren irudi bizi bat.

beti izan dela arrotz, baita maxkaradek idarokitzen dituzten mende urru-netan ere. Ez garela sekula kaletartu, indioak bezalatsu, herritasuna galduz baizik.

«Hanitxek maitatia, eta gütik hün-gütia» omen den ijitoen erregea, bes-talde, oso interesgarria ere, ijitoei bu-ruz eskaintzen digun irizkeragatik.

Eta, tarteka nahasirik, nola ez, dan-tzariak behin eta berriz ari. «Godalet-dantza» famatua, dena dela, basoaren gainera igo gabe ikusi dugu.

Ba bide dago horretan guztian, gaurkotuz eta eraberrituz, euskal an-



Xiberoko maskaradak

Lehenengo aldiz ere ikusten zuen Hendaiako artista batekin mintzatua naiz bukatzean; eta, zinez, zoratuta zegoen pozez. Bikaina dela esaten zidan behin eta berriz; eta euskal teatro herrikoia eraikitzeke oinarri zindoa. Aski litzatekeela «sketch» labur horiek gaurko gaiak eta arazoak ikutzea.

Gauza ohargarria ere, artzain eta baserritar gisa agertzen dira euskaldunak maxkaradetan. Perratzaileak, txorroxtaileak, edozein kale-lanbide egiten dutenak, berriz, biarnesez mintzo dira. Horra hor Mitxelenak ere beste bidetatik erakutsia duen soziologi —dato nagusia— euskaldun burgesirik ez dela sekulan egon, kalea

tzerkia azkartzeko eta sustraitzeko erarik.

—o0o—

Etxart-arrak aipatu baititut, ezin nitzake gainerakoak aipatu gabe utz: Garat atabalaria aurrenik, Etxahun-en lankidea, ezin nekatua, eta Ziberoko edozein falklore-bultzadatan sartua; eta, Garat bezain nekagaitza, den Bedatzager txülüla-joile gaztea, Urdinharbe-koa hau.

Bioi, eta altzaiar jator guztiei: Biba Altzai! Zorionak, eta atxik!

LARRESORO